

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LAZKAOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2013.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den otsailaren 25ean Lazkaoko Udalaren eta Lazkao Lantzen, SA bere sozietate publikoaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa.

Txostenak ondorioztatu du bai Udalak, bai Lazkao Lantzen, SAK zuzentasunez bete dutela 2013ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia; alabaina, akatsak azaleratu dira **Langileen Gastuen atalean** (produktibitate-osagarria izaera orokorrarekin ordaintzea), **Ondarean** (Udalak ez du lurzoruaren ondare publikorik, gainerako bere ondarearekiko independentea eta berezia) eta **Administrazioko Kontratazioan** (Udalak lizitaturiko bi kontraturen egikaritzak esleitutako zenbatekoaren gainean % 10eko muga gainditzen duten igoerak eragin zituen eta horrek kontratuen lizitazio eta esleipen baldintza oinarritzkoak eraldatu zituen). Gainera, Udalak zuzenean kontratatu zuen udal eraikinak garbitzeko zerbitzua. Lazkao Lantzen, SAK ez zuen 2 kontraturen lizitazioa ez EBAOn ez EAOn argitaratu).

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk bietarako aldeko iritzia plazaratu du, nahiz Udalari dagokionez zenbait doiketa azaleratu diren, Diruzaintza Geldikina 456 mila euroan murrizarazi dutenak. Gainera, Udalaren Urteko Kontuen Oroitidazkiak ez du 2013ko abenduaren 31n konprometituriko kredituei buruzko berri ematen, esleitutako eta egikaritzeko dauden inbertsioen kontzeptukoak, 2,8 milioi eurorenak, zeinetatik 2,2 milioi euro atxikitako diru-sarreraren bitartez finantzatu diren.

Egoera finantzarioari dagokionez, Udalak 2012 eta 2013ko ekitaldietan aurrezki garbi positiboa erakutsi du, urteko inbertsioak finantzatzeko nahikoa dena; are, Diruzaintza Geldikinaren saldoa gehitzeko bide eman du. Horrek guztiak Udala kaudimen ekonomikoko egoeran jartzen du, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideekin eta zorpetu beharrik izan gabe, etorkizuneko inbertsioei berezko baliabideekin aurre egiteko.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udalak 2013an aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak eta gastuaren araua bete dituela.